

Azala eta mamia

Uztailaren bukaera aldera Lasiterrara hurbildu ginen giro hozkirria zela eta gari onduaren usainaren artean. Sozioanalisi narratiboaren lanketak bildu gintuen *chantiere* batera. Chantiere hitzak zer pentsa eman zidan, gaztelaniazko itzulpena askotarikoa izan liteke: seminario, laboratoriorio, astillero... Euskaraz hizkidea aurkitzen saiatu nintzen: mintegia, ideia-auzolana, ondalana, barneola... Tira, utzi dezagun horrela: *chantiere*. Ez alferrik jarduera hau Italiatik dator eta bertan hezurmamitu da, habia eta seaska espetxeen errealitatea izan zela.

Chantieriekideen jatorriak eta esperientziak askoz zabalagoak zen eta Arabako mendebalderaino iristen ziren Alacant nahiz Goizuetako oihartzunak, Bizkaiko kostaldekoak, Madril zein Toscanakoak, Txilekoak, Gasteizko alde zaharrekoak, Trentokoak, Iruñerrikoak, Boliviakoak...

Bizipenen, asmoen aberastasunak muga estuegia zuen hitzaldien tarreetan eta maiz zabaltzen zen otordu nahiz atsedendietara.

Italieraz orain gero gaztelaniaz, hari patxadatsu baina tinkoan narrazioaren inguruko ideiak txirikordatzen ziren denboraren joanean. Gogoeta sakon eta esperientzia gordinetan eraikiak, mugako egoerek eraginak. Narrazioa eta haren *restituzione* (berrezarpena?). Bi kontzeptu hauen garrantzia, nork bere narrazioaren jabe eta egilea izan behar du eta partekatzeke bide egokia aurkitu behar du.

Gizarte postmoderno eta hiperteknologiko honetan nola sortzen, nola bideratzen dugu gure narrazioa? Nola, norekin partekatzen? Geronek taxutzen dugu geure narrazioa ala beste batzuen diktatuan kopiatzen dugu? Agian bizkorregi bizi gara galdera hauetaz gogoeta egiteko, baina funtsezkoa litzateke ariketa hau.

Bejondeiola Azala Espazio-ri, hau bezalako *chantiere* eta jardunak lagungarriak dira oso xede honetarako. Espazioa eta denbora, adimena eta sentimendua, hausnarketa eta sorkuntza. Azala eta mamia. Zorte on.

Rufus

2011ko abuztuan idatzia